

8. Funtsezko baliabideak

Enpresa batek aurrera egin dezan beharrezkoak dira aktibo batzuk, horiek dira funtsezko baliabideak.

Lau motatakoak daude: fisikoak, intelektualak, giza-baliabideak eta finantza-baliabideak.

Baliabide fisikoak:

Gure kasuan bezeroak gurekin harremanetan jartzeko lokal bat alokairuko dugu, Lokalak 50m² neurtzen ditu, eta hilabetean 750 euro ordainduko ditugu. Gainera 2 maila erosiko ditugu, bakoitzak 55 euro balioko duena eta 4 aulki bezeroentzako eta langileentzako, bakoitzean 50 euro gastatuko ditugu. Eta azkenik, lokalean wifi-a beharko dugunez, konpainia bat kontratatuko dugu, eta ruter bat jarriko digu.



Baliabide intelektualak:

Atal batzuk daude bertan azalduko direnak, informazio pribatua, marka, patenteak, egile eskubideak eta bezeroen datu babesa.

Gure kasuan, app bat egingo dugu, patentea egite eta logoa erregistratzea 4100 euro balioko digu. Eta beste alde batetik web orrialde bat izango dugu bezeroen beharrak asetzeko eta beraiei laguntzeko, eta gure app-a sortzeko enpresa bat kontratatuko dugu nahi ditugun ezaugarri guztiak ezartzeko.

Giza-baliabideak:

Gure kasuan informatikariak beharko ditugu, aplikazio bat nola mantendu eta eguneratzen dakitenak, honekin Munia kanpo enpresa batekin kontaktuan jarriko da (estudio alfa) gure helburuak azaldu eta horiek

betetzeko, Paula giza baliabideetaz arduratuko da, horrela gure enpresaren langile egokiak kontratatu eta ebaluatzeko, Liher eta Asier administrazio kudeaketaz arduratuko dira, gastuak, enpresako dirua antolantzen. Proiektua aurrera doan heinean langile gehiago kontratatuko ditugu beharrezkoa bada.

Finantza-baliabideak:

Gure kasuan baliabide fisikoaren aldetik, bakoitzak (4 pertsona) 3.000€ jarriko ditugu, honekin batera prestamo bat eskatuko dugu 8.000€-koa gastuekin aurre egiteko, eta lau do bost urteetan ordaintzea aurreikusten dugu. Guztira 20.000€ bilduko ditugu, ordaindu behar ditugun gastu guztiei aurre egiteko.